

JARRAIBIDEAK

Ospitalizazioko Unitatea – HEMATOLOGIA

Dei egiteko beharrean bazaude, erabili gelako txirrina

GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Garbiketerako, gelan bertan komuna duzu, eta dutxa unitatean.
- Dei egiteko beharrean bazaude, erabili gelako txirrina, horrela lana errazten baitiguzu; kontrolera ateratzen bazara, baliteke gure lana oztopatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Ez ahaztu ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduak edo lurgabeak.
- 9:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitatetik kanpo irten behar izango dute. Beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debeakututa dago unitateko korredoreetan geratzea.
- Zerbitzuaren beharrianak direla-eta, gela-aldaketa izan ahal da ingresatuta zauden bitartean.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA



Astelehenetik larunbatera, jaiegunetan izan ezik, 10:00etatik 14:00etara, gutxi gorabehera. Bisitan zehar, gelan, medikuak pazienteari eta familiartekoei haren egoeraren berri emango die.

FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA



Bisita-aldian egingo da, pazientearen gelan. Edozein unetan familiartekoren batek informazio zehatzagoa nahi badu, erizaintzako kontrolean eska dezake.

OTORDUAK



9:10ean	Gosaria
13:15ean	Bazkaria
17ean	Merienda
20ean	Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.** Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute.



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



ALTA hartzeko egunean, gela arratseko 15:00ak baino lehen utzi beharko duzu.

Ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela gogorazten da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



AEEC Arabako Minbiziaren aurkako elkarte espainarrak erabiltzaile eta senideei arreta psikosozialaren zerbitzua eskaintzen die. Porticada Plaza, 1. Telefonoa: 945 26 32 97 Ordutegia: 8:00-18:00 astelehenetik ostiralera.

"Gaixoari laguntzeko boluntarioen zerbitzua ospitalean eta etxean". ARABA ESiko Txagorritxu 6.C solairua, Ordutegia: 9:00-14:00 astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 945 00 70 00 luz: 5202



Laguntza erlijiosa eta espirituala:

Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). **Erljio-laguntzako ordutegi** berria 9etatik 17etara izango da egunero..

Beste erlijio batzuetako pazientek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).